

Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Proben Batzordea

2023-2024 ikasturteko proben antolamendurako akta

1. Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Batzarrak 2002ko maiatzaren 23an onartu zuen eta 2002ko uztailaren 11ko EHAAn argitaratu zen Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Proben Arautegiak zehazten du Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Proben Batzordeak akta bat prestatu eta argitaratuko duela urtero, proba-eredua, zuzenketa-irizpideak eta deialdi-epreak zehazteko.

2. Azterketak bi atal izango ditu: idatzia eta ahozkoa. Idatzia gainditzen duten azterketariak bakarrik egingo dute ahozko azterketa.

2.1. **Idatzizko atalak** bi azpiatal izango ditu: **ariketak eta idazlana**. Azterketariak azpiatal biak gainditu beharko ditu azterketa idatzia gainditzeko.

2.2. Ariketen helburua hizkuntza-gaitasuna neurtzea da. Azterketariak bi ariketa egin beharko ditu:

2.2.1. **Lehen ariketa aukera anitzeko galderen proba** izango da. Proba osatuko duten 50 galderei erantzun beharko die azterketariak, ematen zaizkion aukerako lau erantzunen artean egokiena hautatuz (1. eranskina). Azterketariak 32 galderari erantzun beharko die zuzen atal hau gainditzeko (erantzun zuzenak bakarrik hartuko dira kontuan; ez dira zigortuko erantzun okerrak).

2.2.2. **Bigarren ariketan, irakurriaren ulermenari** dagokionean, bi edo hiru testu eskainiko zaizkio azterketariari, testuei buruzko 10 galderei dagozkien aukerako erantzunen artean egokiena aukeratu dezan (2. eranskina). Azterketariak 6 galderari erantzun beharko die zuzen atal hau gainditzeko (erantzun zuzenak bakarrik hartuko dira kontuan; ez dira zigortuko erantzun okerrak).

2.3. **Idazlanak** 300 hitz izango ditu gutxienez (gaiak 3. eranskinean jasotzen diren erakoak izango dira). Idazlanaren kalifikazioa GAI / EZGAI izango da, puntuaziorik adierazi gabe.

3. **Azterketa idatzia egiteko 2 ordu eta 45 minutu** izango ditu azterketariak. Azterketari bakoitzak nahi duen bezala banatu dezake denbora; nolana ere, honako hau da Euskara Proben batzordearen gomendioa ariketei eskaintzeko denborari dagokionez:

- Aukera anitzeko galderen proba: 45 minutu
- Irakurriaren ulermena: 35 minutu
- Idazlana: **85 minutu**

Emaitza GAI / EZGAI izango da punturik zehaztu gabe. GAI kalifikazioa izango du azterketa idatziaren atal guztiak (bi ariketak eta idazlana) gainditzen dituen azterketariak.

4. Ahozko azterketa. Azterketa idatzia gainditu duten azterketariek bakarrik egingo ahal izango dute ahozko azterketa, horretarako adieraziko zaien egunean eta lekuan. Ahozko azterketa grabatzeko aukera dago, azterketariaren baimenarekin; baimena eman nahi ez duen azterketariak uko egite-agiri bat sinatu beharko du; bi zati izango ditu ahozko azterketak:

4.1. **Eskola ematea:** azterketariak bere jakintza-arloko gai bat azalduko du, euskara batuan, 7-8 minutuan. Gai hori aldeztatik prestatu dezake azterketariak, eta eskola eman ahal izateko, aukera izango du euskarri digitalak erabiltzeko (powerpointak...).

4.2. **Elkarriketa librea:** azterketariak epaimahaikoen galderari erantzun die eta haien eskaturiko azalpenak emango ditu (7-8 minutu gehienez). Epaimahaikoek azterketariaren jakintza-arloarekin edo gaiarekin zerikusia duten galderak egin diezazkiokete azterketariari.

5. Idatzizko eta ahozko azterketa zuzentzeko, akta honetan jasotzen diren irizpideak erabiliko dituzte epaimahaikideek (ikus 4. eranskina), eta azterketari bakoitzaren emaitza fitxa batean jasoko dute (5. eranskina). Azterketariek aukera izango dute beren azterketen hirugarren zuzenketa eskatzeko, horretarako, garaiz egin beharko dute eskaera; hirugarren zuzenketa ondoan, azterketa (eta azterketak izan dituen zuzenketa) ikusteko aukera ere izango dute.

6. Azterketan parte hartzeko baldintza.

Proban parte hartu ahal izateko, azterketariak egiaztatu beharko du euskararen B2 jakite-maila gainditua duela.

7. 2023-24 ikasturteko deialdiari dagozkion datak:

Deialdiaren data: 2024ko apirilaren 10a

Deialdiaren berri zabaltzeko egunak: apirilaren 10etik 11ra.

Izena emateko epea: apirilaren 11tik maiatzaren 2a bitartean, biak barne.

Onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzea: maiatzaren 9a.

Onartuen behin betiko zerrenda argitaratzea: maiatzaren 16a.

Azterketa-egunak:

PROBA IDATZIA: maiatzaren 30a, osteguna

AHOZKO PROBA: ekainaren 4a, asteartea

Emaitzen behin-behineko zerrenda argitaratzea: ekainaren 6a.

Azterketa berraztertzea (hirugarren zuzenketa) eskatzeko epea: ekainaren 10etik 14ra.

Azterketak ikusteko egunak: ekainaren 18a eta 20a.

Emaitzen behin betiko zerrenda argitaratzea: ekainaren 20a.

1. ERANSKINA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu amaieran (11. orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrenetatik ez da punturik kenduko.

1. _____ *konfiantza galtzerik nahi ez baduzu, esaiozu dakizun guztia.*

- a) Zuregana
- b) Zureganako
- c) Zurenganako
- d) Zuri buruzko

2. *Gizaki modernoak hiria utzi eta _____ itzuli behar du.*

- a) izadiarengana
- b) izadiagana
- c) izadira
- d) izadiara

3. *Edateko zer nahi duzu?*

- a) Ardo baso bat.
- b) Ardoa apur bat.
- c) Baso bat ardo.
- d) Pixka bat ardo.

4. *Zein da zuzena?*

- a) Zenbat ikasleek gainditu dute azterketa?
- b) Zenbat ikaslek gainditu dute azterketa?
- c) Zenbat ikasleek gainditu du azterketa?
- d) Zenbat ikasleak gainditu dute azterketa?

5. *Edurne _____ izendatu dugu batzarrean.*

- a) ordezkaria
- b) ordezkari bezala
- c) ordezkari
- d) ordezkari gisa

6. *Kalean ikusi _____ salatu zaitu.*

- a) dizunak
- b) zaituena
- c) duzuna
- d) zaituenak

7. *Zein da zuzena?*

- a) Egia esan zioten elkarri.
- b) Egia esan zion elkarri.
- c) Egia esan zuten elkarri.
- d) Egia elkar esan zuten.

8. *Zu ez zara hori egiteko gauza. Zein da erantzun egokiena?*
- Bai naizela!
 - Bai zera!
 - Ez, hori bai ezetz!
 - Izango ez naiz, ba!
9. *Gezurretan eta azpijokoan ibiltzen _____ al zara zu ere?*
- denekoa
 - direnetakoa
 - dena
 - zarenetakoa
10. *Aita lanera doa, _____*
- eta ni ere banoa.
 - baita ere ni noa.
 - eta ni baita.
 - eta ni ere bai noa.
11. *Dirurik izan ez _____ ere, oportetara joango nintzen.*
- banuen
 - banu
 - nuenez
 - banuke
12. *Sutan jarri ninduen, eta lepotik heldu _____ ahal bezain estu.*
- nuen
 - nintzaion
 - nion
 - nakion
13. *Idazkerari dagokionez, zein da zuzena?*
- Erakunde sortu berri batek adierazi duenez, gertaera hori, ordea, ez da fikzioa, gerran dauden drama baizik.
 - Erakunde sortu berri batek adierazi duenez gertaera hori, ordea, ez da fikzioa; gerran dauden drama baizik.
 - Erakunde sortu berri batek adierazi duenez, gertaera hori, ordea, ez da fikzioa. Gerran dauden drama baizik.
 - Erakunde sortu berri batek adierazi duenez, gertaera hori; ordea, ez da fikzioa; gerran dauden drama baizik.
14. *Afrikarrak saiatuko _____, aise irabaz _____ lasterketa.*
- balu / dezake
 - balira / zezaketen
 - balu / lezake
 - balira / lezakete
15. *Zertaz hitz egin duzue? Woody Allen-en _____.*
- pelikuletaz hitz egin dugu.
 - pelikulen buruz hitz egin dugu.

- c) pelikulez hitz egin dugu.
d) pelikuleen gainean hitz egin dugu.
16. *Zertarako zabaldu duzu leihoa?*
a) Arnasa hobeki hartzearren.
b) Arnasa hobeki hartu arren.
c) Arnasa hobeki hartu nuelakoan.
d) Arnasa hobeto hartuko badugu.
17. Zein dago **txarto**?
a) Etxean ez zeukan inori begiratu.
b) Ez duzu zertan hara joanik.
c) Ez duzu negar egin beharrik.
d) Ez duzu zertan negar egin.
18. *Praktikak _____ asko ikasten da.*
a) eginez
b) egiten
c) egiteagatik
d) egiteaz
19. *Gure etxea ez da _____, ezta _____ ere.*
a) zurea bezala / Mikelen modukoa
b) zurea bezalakoa / Mikelena bezalakoa
c) zure modukoa / Mikelena legezkoa
d) zure moduan / Mikelena bezala
20. Zer hitz-zerrendatan ageri da ortografia **akatsen bat**?
a) Leihatu, sustatu, atzendu, suspertu
b) Hurbil, ibai, oihan, amets
c) Antzu, istorio, urrats, huts
d) Ihes, sutsu, maltzur, hondar
21. Ortografiaren aldetik, zer esaldi dago zuzen idatzita?
a) Atzo arratsean eskale bat hurbildu zitzaidan laguntza-eske.
b) Atzo arratzean eskale bat hurbildu zitzaidan laguntza-eske.
c) Atso arratzean eskale bat hurbildu zitzaidan laguntza eske.
d) Atzo arratsean eskale bat hurbildu zitzaidan laguntza eske.
22. Zein da zuzena ortografiaren aldetik?
a) Udaberria lehorra izan ezkerro, uda luzea izan ohi da.
b) Garaiz etorritz gero, beharbada joan gintezke Arantxaren etxera.
c) Ez daukate ezertarako astirik, oso lanpetuta baidabilta.
d) Gogor hartuarren, ez dut uste ezer esango dizunik.
23. Zein da zuzena euskaraz?
a) Arazo horri aurkituko diozu irtenbidea, zeinek asko poztuko baitzaitu.
b) Etxera azaldu ziren bi saltzaileak ziri ederra sartu zizuten.
c) Horixe da matxura zeinek hainbat lanordu galarazi zizkigunak.
d) Aurkeztu nahi dizut laguna zeinekin aurreko larunbatean afaldu baitugun.

24. Zozketako txartela _____ inoiz ez zaizu egokituko.
- ez erostean
 - ez erosiz gero
 - ez erositakoan
 - erosi ezean
25. Idazkerari dagokionez, zein da zuzena?
- Hamazazpi urte ditu, institutuan dabil, beste ikasle guztiak bezalaxe doa, egunero-egunero, eskolara.
 - Hamazazpi urte ditu institutuan dabil, beste ikasle guztiak bezalaxe doa egunero-egunero eskolara.
 - Hamazazpi urte ditu; institutuan dabil beste ikasle guztiak bezalaxe doa, egunero-egunero eskolara.
 - Hamazazpi urte ditu, institutuan dabil, beste ikasle guztiak bezalaxe, doa egunero-egunero eskolara.
26. Zein da zuzena?
- Euskal Herriko biztanle kopurua hiru milioiraino iritsi da.
 - Euskal Herriko biztanle kopurua hiru milioirarte iritsi da.
 - Euskal Herriko biztanle kopurua hiru milioi arte iritsi da.
 - Euskal Herriko biztanle kopurua hiru milioi arteraino iritsi da.
27. Idazkerari dagokionez, zein da zuzena?
- Jose Ramon Berriozabal sukaldaria (Elorrio, 61 urte) hil da. 2010ean Michelin izar bat lortu zuen Gasteizen zeukan Ikea jatetxean.
 - JOSE RAMON BERRIOZABAL sukaldaria (Elorrio, 61 urte) hil da; 2010ean Mitxelin Izar Bat lortu zuen Gasteizen zeukan IKEA jatetxean.
 - Jose Ramon Berriozabal Sukaldaria (Elorrio. 61 urte) hil da; 2010ean Mitxelin Izar bat lortu zuen Gazteisen zeukan IKEA jatetxean.
 - Jose Ramon Berriozabal Sukaldaria (Elorrio. 61 urte) hil da. 2010ean Michelin izar bat lortu zuen Gazteisen zeukan Ikea Jatetxean.
28. Hurrengo zerrendetatik, zeinetan dago lekuz kanpoko hitz bat?
- Buztina, lohia, basatza, lurra.
 - Harria, lauza, adreilua, harlauza.
 - Belakia, oilagorra, belea, oskilasoa.
 - Ardia, axuria, bildotsa, aharia.
29. Zein da zuzena?
- Bermugitu kafea, azukrea hondoan dauka eta.
 - Eragiozu kafeari, azukrea hondoan dauka eta.
 - Eragin kafea, azukrea hondoan dauka eta.
 - Higi ezazu kafea, azukrea hondoan dauka eta.
30. Idazkerari dagokionez, zein dago zuzen?
- Ollanta Humala Peruko presidenteak Jose Urquizo izendatu du Defentsa ministro, eta Wilber Calle, Barne ministro.
 - Ollanta Humala Peruko Presidenteak, Jose Urquizo izendatu du Defentsa Ministro, eta, Wilber Calle Barne Ministro.

- c) Ollanta Humala Peruko Presidenteak, Jose Urquizo izendatu du defentsa Ministro, eta, Wilber Calle barne Ministro.
d) Ollanta Humala Peruko presidentek, Jose Urquizo izendatu du defentsa ministro, eta Wilber Calle barne ministro.
31. *Ni ez beste guztiak joan ziren komunera. Zer esan nahi du?*
a) Ni izan ezik, denok ere joan ziren komunera.
b) Ni ez ezik, denok joan ziren komunera.
c) Denak joan ziren komunera, ni izan ezik.
d) Denak joan ziren komunera, ni baizik.
32. *Ez zuen etsi _____ aukera guztiak agortu _____.*
a) nahiz eta / arte
b) baita / ere
c) nahiz eta / ere
d) harik eta / arte
33. *Zein da zuzena euskara batuan?*
a) Irailako azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
b) Iraileko azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
c) Iraileko azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
d) Irailako azterketak hil horren hamaiketan hasiko dira.
34. *Gurean _____ gosaltzen da, soil-soilik. Zein da egokiena?*
a) behi-esnea
b) esne-behi egosia
c) esne-behia
d) esnearekin
35. *Zein da zuzena ortografiaren aldetik?*
a) Senar emazteak hika-mika batean ari ziren gu iritzi ginenean.
b) Senar-emazteak hika-mika batean ari ziren gu iritxi ginenean.
c) Senar emazteak ika-mika batean ari ziren gu iritsi ginenean.
d) Senar-emazteak ika-mika batean ari ziren gu iritsi ginenean.
36. *Zer aukera da guztiz zuzena ortografiaren aldetik?*
a) Segundo, minutu, sindikatu, proiektu.
b) Ebaluaketa, herriska, aizkora, bekatu.
c) Begibistako, bilutsik, doan, berretsi.
d) Ahuntz, ahaidetasun, bederatzirehun, dohan.
37. *Zein da hitz-zerrenda zuzena ortografiaren aldetik?*
a) Esku-hartze, begi-bistako, hizkuntza-egoera, literatura-baliabideak.
b) Hezkuntz-eredua, lan-eske, osaba-izebak, neska-mutilak.
c) Bazkal ondo, sasi jakintsu, isilarazi, janari-bila, gogo falta.
d) Bat-batean, batik-bat, behin betiko, behin-behineko.

38. Zein da zuzena ortografiaren aldetik?
a) Zentzumena, kutxadura, ohartzeke, patxadatsu.
b) Jasanezin, somatu, higuin, hurrundu.
c) Gaitzetsi, gaixo, zerbitzatu, suntsitu.
d) Zorritsu, odolustu, lainesa, zaletu.
39. Zein da zuzena ortografiaren aldetik?
a) Zenbaiten iritziz, hutsune handiak jazo ziren norgehiagoka hartan.
b) Batzuren iritziz, utsune handiak jaso ziren norgehiagoka hartan
c) Zenbaiten iritziz, hutsune handiak jazo ziren norgehiagoka hartan.
d) Batzuen iritziz, hutsune haundiak jazo ziren norgeihagoka hartan.
40. Emakume baten gurasoen semea zer da emakume horrekiko?
a) senarra
b) neba
c) anaiordea
d) ezer ez
41. Zein dago **txarto**? Aitari _____ dio.
a) gorroto
b) beldur
c) mehatxu
d) bekaitza
42. Animalia hauetatik zein da txikiena?
a) Eltxoa
b) Tximeleta
c) Matxinsaltoa
d) Erlea
43. *Imanolek irabaziko ote du?* Aukeratu ezazu erantzun egokiena.
a) Ikusi egin behar.
b) Noski bai!
c) Jakina irabaziko duen!
d) Beharbada irabaziko duela.
44. *Kirtenkeriarik _____ ez esan.*
a) gitxienez
b) behintzat
c) bestela
d) izan ere
45. *Gaur goizeko euri-tantak _____ ziren.* Zein da egokiena?
a) biribilak
b) sendoak
c) mardulak
d) gizenak

46. Aukeratu zuzena.

- a) Badago irakasle bat haserretzean ikasleak jotzen dituela.
- b) Noiz eta goizago oheratu, orduan eta hobeto lo egin.
- c) Oparia eman dietenei oso pozik jarri dira.
- d) Eskerrak ikasturtea laster amaituko den!

47. *Bilboko Erakustazokan, erakusketa batzuk _____ baino ez dira antolatzen; urte batean bai, eta hurrengoan ez, alegia.*

- a) bi urteko
- b) bi urtez
- c) bi urterik behin
- d) bi urtero

48. *Ezin nekatuago zegoen, eta loak hartu zuen berehala. Zein da zuzena?*

- a) Hain nekatuta zegoenez, loak hartu zuela.
- b) Hain zegoelako nekatuta, loak hartu zuen.
- c) Hain zegoen nekatuta, non loak hartu zuela.
- d) Hain zegoen nekatuta, ezen loak hartu zuen.

49. *Azkarra zara, gero!*

- a) Azkarra zara orain eta izango zara gero ere.
- b) Izatez azkarra zara, baina...
- c) Benetan zara azkarra.
- d) Ez zara oso azkarra.

50. *Zer jan duzue?*

- a) Jan ezer ere. Probatu dugu apurtxo bat.
- b) Jan? Ezer ere ez. Probatu baino ez dugu egin.
- c) Jan ez, probatu dugu.
- d) Ez dugu jan, baizik eta probatu dugu.

ERANTZUN-TAULA

1 B	11 B	21 D	31 C	41 C
2 C	12 C	22 B	32 D	42 A
3 C	13 A	23 A	33 C	43 A
4 B	14 D	24 D	34 A	44 B
5 C	15 C	25 A	35 D	45 C
6 D	16 A	26 A	36 A	46 D
7 A	17 A	27 A	37 A	47 C
8 D	18 A	28 C	38 C	48 D
9 B	19 B	29 B	39 A	49 C
10 A	20 A	30 A	40 B	50 B

2. ERANSKINA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu ondoko orrietako hiru testuak. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galdera batzuk dituzu, aukeran erantzun batzuk dituztenak. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu amaieran (15. orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun zuzenari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

1. TESTUA

Simon

Egun argitan lo egiten du Simonek. Eguzkia ezkututzen hasten denean zabaltzen ditu begiak, eta orduan hasten da berarentzat egun berria. Ilunpetan pasatzen dituen ez ordurik gehienak, horretara ohituta dauka bista.

Lur azalean dagoenean, hiriko argi emana ikus dezake, zirkulazioa sentitu, jendea pasaeran ukitu.

Baina lur azpian sartzearekin batera, isolatu egingo da: mundu berri batean sartuko da, arau propioak dauzkan gizarte txiki batean murgilduko da, eta bertako partaide izango da ordu batzuetan.

Ilun dago behean. Ez da argirik ikusten beste aldean. Eta horrek nahigabea eragiten dio zenbait egunetan Simoni. Baina aurkitu du aurre egiteko modua ere: umorea da botikarik eraginkorra. Ahal duen guztietan, barre egiten du ondokoekin, ondokoez, bere buruaz. Horrela, iluna ez du hain beltz ikusten. Eta berriro ere lurrazalera ateratzen diren arteko orduak 60 minutu izan beharrean, 50 dituztela pentsatzen du, berez luze egiten zaiona laburrago sentituz.

Arratoiak lagun ditu, eta haiek Simon ere ezagutzen dute. Ez dituzte alferrik elkarren ondoan hainbeste eurite, elurte eta haizete pasatu. Eta ondo ikasia daukate, burdinazko sugea, urrutian, bi begiak zabaldua datorrela ikustean, alde batera egin behar dutela.

Gauetz, mantsoago etorri ohi da, urrundik orroa boteaz, badatorrela adieraziz.

New Yorkeko lur azpiko pasabideetan egonagatik, burua gora jiratzen du zenbaitzuetan: han dauzka maite dituen guztiak, eta pentsamenduak handik jaso nahi izaten ditu.

Eguna argitzen hasten denean, Simon lurrazalera igotzen da. Eta milioika hiritarri uzten die lekua behean. Dena prest dago: burdinbidea segurua da.

24 orduan etenik gabe dabilen munduko metro bakarrari bidea garbitzen eta konpontzen dioten langileak dira. Hiriko meatzariak. Eta, meatzari guztiek bezala, nire miresmenik handiena dute horiek ere.

Gari Udabe
2012-05-05
Larrepetit, BERRIA

1) Simonek egunez lo eta gauez lan egiten du lur azpian, zertan?

- a) New Yorkeko metroko meatzari lanetan, pasabide berriak egiten.
- b) Burdinazko sugeari bidea txukuntzen eta atontzen.
- c) Euriteek-eta burdinbidean uzten dituzten kalteak konpontzen.

2) Egilearen ustez, Simonentzat umorea da botikarik eraginkorrena. Zergatik?

- a) Umorearen bitartez, bere buruaz barre egiten ikasi duelako.
- b) Lur azpiko mundu berezi horretan bakartzen laguntzen diolako.
- c) Gaueko lanaldi luze-astuna eramangarriago bihurtzen diolako.

3) Testua oro har hartuta, zein esaldik laburtzen du egilearen jarrera?

- a) Meatzari orok lilurutzen dute Gari Udabe kazetaria.
- b) Argirik ezari aurre egiteko botikarik onena umorea da.
- c) Lur azpiko ilunak nahigabea sortzen die langileei.

2.TESTUA

Etnosferaren harrigarria

Arazo batez ohartzea ez da, noski, soluzioa aurkitzea. Eta begietatik beloa kentzeak ez du nahitaez esan nahi ikusmena erabat berreskuratu dugunik. Dibertsitate biologikoaren porrota deitoratzen badugu ere, oso arreta gutxi eskaintzen diogu galera-prozesu paralelo bati: kulturen askotarikoa desagertzeari, etnosfera izenda litekeenaren higadurari. Zer da etnosfera? Bere konplexutasun erabatekoan — kulturak eta moldaketak kontzientziaren egunsentitik zertu duten bezala— osaturiko giza ahala. Michael Krauss hizkuntzalariak gogorarazten digunez, biologo ezkorrena ere ez litzateke ausartuko egun diren espezie guztien erdiak arriskuan edo desagertzearela iradokitzen. Hori hala izanik ere, askotariko biologikoaren etorkizunaz egindako adierazpen apokaliptikoena ere ia ez zaio hurreratu ere egiten munduko hizkuntza eta kulturen patuaz pentsa litekeen eszenariorik onentzat jotzen denari.

Mundu osoan zehar, 300 milioi lagun inguruk, gutxi gorabehera munduko populazioaren % 5ek, oraindik ere identitate sendoa dute kultura indigena baten kide gisa, beren historian eta hizkuntzan errotuta daude, planetako leku jakin bati lotuta mitoen eta oroimenaren bidez. Populaziook txikiak badira ere, kultura horiek munduko hizkuntzen % 60 dute, eta, denek batera, gizadiaren ondare intelektualaren erdia inguru osatzen dute. Hala ere, gero eta gehiago, haien ahotsak isilarazi egiten dira, eta bizitzaz duten ikuspegi berezi eta bakarria aldaketaren eta gatazkaren zurrunbiloan galtzen da.

Ez dago krisi hori neurtzeko modu hoberik hizkuntzen galera baino. Giza historia osoan zehar, hamar mila hizkuntza inguru izan dira. Egun, oraindik ere hitz egiten diren sei miletatik, erdiak ez zaizkie irakasten hurrei, dagoeneko hilda daudela jotzen delako, eta hirurehun hizkuntzak baizik ez dute milioi bat hiztun baino gehiago. Seiehun baizik ez dituzte jotzen hizkuntzalariak egonkor eta segurutzat. Beste mende bat barru, kopuru hori izugarri urrituko da beharbada.

“Etnosferaren harrigarria” (pasarte hautatuak),
Argia munduaren ertzean, ZIO 10
Wade Davis (itzultzailea: Iñaki Iñurrieta)

4) Zer esaten da testuan kultura indigenei buruz?

- a) Munduko populazioaren % 5 kultura indigena baten kide dira eta identitate sendoa gordetzen dute.
- b) Aldaketaren eta gatazkaren zurrunbiloak oraindik ez du lortu populazio indigenen ahotsak isilaraztea.
- c) Kultura indigenek gizadiaren ondare intelektualaren % 60 inguru osatzen dute.

5) Zer dio testuak etnosferaren higaduraz:

- a) Oso arreta gutxi eskaintzen diogu dibertsitate biologikoaren porrotari.
- b) Oso ondo egiten dugu dibertsitate biologikoaren porrota deitoratuz.
- c) Kultura ugari desagertzeak ez gaitu gehiegi kezkatzen.

6) Biologiaren eta hizkuntzen etorkizunaz

- a) Hizkuntzen eta kulturen patua askotariko biologikoarena baino askoz okerragoa da.
- b) Kraus-en arabera, biologo ezkorrenek diote espezie guztien erdiak arriskuan edo desagertzear direla.
- c) Askotariko biologikoaren etorkizuna eta hizkuntza eta kulturena ez dira hain ezberdinak.

3. TESTUA

Stéphane Hessel

— **“Beti egon naiz disidenteen bandoan”. Zer da, printzipio bat ala konstatazio bat?**

—Seguru asko nire sorterriari zor diodan printzipio bat. Berlinen jaio nintzen, eta Berlineko gazteak, Parisekoak bezala, borondatezko lotsagabekeria darama zainetan. Hori gutxi ez, eta moral zorrotz baina konformagaitza txertatu zidan familia aurrerakoi batean sortzeko zoria izan nuen, eta beti sentitu dut nigan disidenteeekin bat egiteko desira. 1937an, Frantziako armadak gerrara deitu ninduenean, nire burkideek baino izu eta nazka handiagoak sentitzen nituen Hitler-en aurrean. Banekien alemanek Führer-ari kasu egiteko aukera handiak zeudela, Alemaniaren handitasun, ospe eta etorkizun oparoa laudatzen zuen diskurtsoa gustagarria baitzen belarri kamutsentzat. Ordurako, ez nengilun alferrik nazismo eta faxismoen aurkako borroka pazifikoetan.

—**Hortik aurrerako zure gerra sasoiko ibilbideak filma dirudi.**

—Hiru urte Londresko espioitza eta informazio bulegoetan lan egin ostean, 1944ko martxoan itzuli nintzen Parisera espioitza misio sekretu baten baitan. Nire kide bat Gestapo-ren eskuetan jausi zen ordea, eta oinazeak ekiditearren nirekin hitzordua jartzera konprometitu zen. Hantxe atxilotu ninduten, torturatu, eta Buchenwarld-eko exterminio-esparrura urkatzera eraman. Egun handiaren bezperan, alta, geunden esparruan tifusak hil berri zuen frantses baten identitatea neureganatzea lortu nuen, eta urkamendia saihestu. Handik, nire izen-abizen berriekin, Rottleberode-ko kontzentrazio eremura deportatu ninduten, eta ihes egiteko saiakera batean berriz atxilotu ostean, gogorrenetan gogorrena kontsideratzen zuten Dora-ko esparruan eduki ninduten. Handik ospa egin eta Pariseraino heltzea erdietsi nuen alabaina, eta gauzak zer diren, Buchenwarlden bizitza salbatu zidan medikuaren semeak itzuli du *Haserretu zaitzete!* alemanera.

—**Zer pasatzen zaio pertsonari burutik, urkatze bezperetan?**

—Parisen agente sekretu franko-britainiarra izanda atxilotu nindutenean, bukatu zela, nireak egin zuela, pentsatu nuen. Gerran etsaiak ez du eskura duen agenterik bizirik uzten. Une horretan etsi egiten duzu, errenditzen zara, baina era berean, bukaerari adorez aurre egiteko grina eta harra sentitzen duzu sabelean gora. Duintasuna ez galtzean datza zure borroka, zure gorputzaren kontrola gal dezakezu, baina burua argi mantentzea da uneoroko eginkizuna. Salbatzeko zorte izugarria behar duzu, baina burua argi izanda soilik jo dezakezu zortearen aldaba.

—**Indiferentzia eta etsipenaz gain, ez ote dago herritarrengan botere edo estatuekiko beldurra?**

—Beldurra baino gehiago, mesfidantza. Ados, gobernatuak izatearen truke gobernu hautatuko dugu, baina behin aukeratuta gobernu horrek benetan egiten ote du egin beharko lukeena? Zergatik da buruzagi politikoez miresmen eta atxikimendua inoiz baino urriagoa? Esaterako, nork dauka Sarkozy gizon handitzat? Frantzian txistetzat daukate, eta kanpoan barre egiten diote. Hori hala, lider karismatikoenak ere beti izan ditu zailtasunak, normalena baita Estatuak herritarra erabat ez asebetetzea, eta agian horrek bihurtzen du herritarra demokraziaren bulkaden motorra. Horregatik diot gazteek erresistentzia espiritu hori mantendu behar dutela, eta erresistentzia estuki lotuta dagoela sormenarekin. Ezin gara sortuta dagoenarekin konformatu, beti sor liteke hobetzeko zerbaite. Esaterako, mundu harmoniatsuagoa sor genezake. Ni bereziki haserre nago gure mundua kudeatzen den moduagatik. Ez dugu gure lurra batere zaintzen, ustiapenaren izenean planeta txikitzen ari gara, eta batzuk ezin asez ari diren bitartean, oraindik ere jendea gosez hiltzen da. Munduko ekonomia finantzarioek kudeatu ezinezko mundua eragin dute, estatuak arautu gabeko ekonomia bat zoratu egiten baita, eta egungo ekonomia zoraturatuta dago.

Sustrai Colina
ARGIA, 2.272 alea; 2011-04-10

7) Hasierako aipamenari buruz egin dioten galderaz, honela dio:

- a) Stéphane Hesselek zuzenago jokatu zuen Bigarren Mundu Gerran bere nagusiek baino.
- b) Jaioterriak eta familiak ez zuen aparteko eraginik izan bere eginbideetan.
- c) Konformatzen zaila suertatu zitzaion familia aurrerakoi batean jaiotzea.
- d) Alemaniarrak, garai hartan, belarri kamutsak ziren gehienak.

8) Gerra sasoiko ibilbideetan hau gertatu zitzaion:

- a) Naziek Londresen harrapatu zuten lagun batekin geratutako tokian, eta handik Buchenwald-eko esparrura eraman.
- b) Agente batek salduta jausi zen alemaniarren atzaparretan, hura bortizki torturatuta ateratako informazioari esker.
- c) Parisen lagun batekin geratu, eta hantxe harrapatu zuten naziek amarru baten ondorioz.
- d) Hiru aldiz jausi zen Gestaporen atzaparretan.

9) Ihes egiteko aukera izan zuen, hain zuzen ere, ...

- a) mediku batek hildako baten nortasuna eskuratu bide zion Hessel Rottleberode-ko eremura joan aurretik.
- b) jai bezperan, medikuak alta eman behar zion egunean, preso bat hil zen tifusak jota.
- c) Dorako esparruan egon zen bere zigorra bete arte, eta, gero, Parisera heltzea lortu zuen.
- d) Liburu baten itzulpena argitaratu zuten balentria hura gogoratzeko.

10) Heriotza-zigorrari buruz, hau dio:

- a) Stéphane Hesselek uste du gerra batean, harrapatzen bazaituzte, hiltzea dela ohikoena, gerra hartan, batez ere, franko-britainiarra izanda.
- b) Atxilo arrunta izan edo agentea izan, ez zen, antza, gauza bera nazien jokabidea zein zitekeen aurreikusteko garaian.
- c) Iparra galdu barik dabilzanak ez dira hiltzen gerretan, batez ere, harrapatzen badituzte.
- d) Horrelakoetan norberak ez du heldulekurik, eta etsi egiten du.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1 B	2 C	3 A	4 A	5 C
6 A	7 D	8 C	9 A	10 B

3. ERANSKINA: IDAZLANA

Egin behar duzun idazlanak **300 HITZ** izan behar ditu gutxienez. Mesedez, idatz ezazu boligrafoz eta gogoan izan ezazu azterketa egiteko duzun denbora. Amaitzean, eman iezaiezu azterketa osoa aztertzaileei. Idazlana egiteko A edo B hautatu behar duzu, eta aukera horietako bat garatzeko, **azpian dituzun gaietako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea idazlana garatzean.** Idazlana euskara batuan egin behar da.

A) Unibertsitateko lankide batek laguntza eskatu dizu. Irakasle talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulua faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulua batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkunde-lanean alegia (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazaratu dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiago aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

IDAZLANA OSATZEKO GAI MOTAK (ADIBIDE GISA)

ARLOA	GAIK (zure arloko bi gaietako bat aukeratu behar duzu)	
Arkitektura	Arkitektura eta gainerako arteak	Bilboko Guggenheim museoa
Artea	Euskal margolariak	Konpara itzazu erromanikoa eta gotikoa
Biologia	Munduaren berotzea eta izaki bizidunak, landareak eta animaliak.	Primateak eta gizakia: eboluzioaren azken urratsak
Ekonomia	Ekonomia-krisiak. Zergatik gertatzen dira?	Monopolioaren esanahia ekonomian
Filologia	Euskara munduko hizkuntzen artean	XXI. mendeko literatura
Filosofia	Antzinako Filosofiaren Historia	Marx
Fisika	Grabitazio-indarra: orbita motak.	Uhinak: soinua eta argia
Geografia	Europa: geografia fisikoa.	Euskal Herriaren geografia: ezaugarri nagusiak eta ezaugarri horien ondorioak
Geologia	Harri motak: kareharria, granitoa, hareharria. Non dira halakoak Euskal Herrian?	Higadura. Lurraren eta paisaiaren aldaketa higaduraren eraginez
Gizarte zientziak	Gizarte- eta kultura-aldaketak	Iritzi publikoa

Heziketa fisikoa	Jarduera fisikoak eta behar bereziak dituzten pertsonen integrazioa	Kirola eta bortizkeria
Historia	Aldi historikoak historiaurretik gaur arte. Nola banatzen da gizakien historia?	Egin ezazu frankismoren kronika laburra
Informatika	Segurtasun informatikoa: antibirusak.	Sistema eragileak. Linux eta Windows konparatzen.
Informazioa	Euskarazko hedabideak gaur	Ordainduta ikusteko programak ala publizitatearen bidez finantzatutako telebistaioak?
Kimika	Azido-base sistemak	Gas idealen propietateak
Kriminologia	Espetxearen funtzioak	Biktimak eta biktimologia
Lan-harremanak	Langileen eskubideak	Negoiazio kolektiboa
Matematika	Polinomioak	Zenbaki-multzoak eta eragiketak.
Osasuna	Kirola osasun-iturri: egia ala topikoa? Nola eta zer neurritan? Kirola ala ariketa?	Medikuak eta erizainak: bataren eta bestearen lanak eta bien arteko harremanak.
Pedagogia	Hizkuntza eta Hezkuntza Euskal Herrian	Orientazioa eta tutoretza
Psikologia	Psikologoaren lan-esparru berriak: kirola, enpresa...	Zer da konduktismoa? Badu aplikaziorik?
Teknologia	Eskuko telefonoak: ezaugarri teknikoak eta gizarte-eragina.	Zenbakizko kontrola fabrikazioan
Zuzenbidea	Kolonia izandako herrien autodeterminazio-eskubidea	Kontsumitzaileak babesteko legeak

4. ERANSKINA: ZUZENKETA-IRIZPIDEAK

4.1. Ariketak. Ariketen bidez bi atal nagusi neurtuko dira.

4.1.1. Helburuak

- Aldi berean, hizkuntzaren alderdi formalak (hizkuntza-araua eta euskara batuari dagokion arau akademikoa) ezagutzeko eta erabilera okerretatik bereizteko gaitasuna neurtzea.
- Irakurriaren ulermena neurtzea: hitz jakin bati, esapide bati edo testu zatiei dagokiena, baita testu zatien arteko erlazioei eta testu osoari dagokiena ere. Testuak zuzen dioena ez ezik, testuak iradokitzen duena ere ulertutzeko gai izango da azterketaria.

4.1.2. Maila. Azterketariak eginkizun hauek betetzeko gai izan behar du:

- Gai izan behar du hizkuntza-forma eta -egitura zuzenak bereizteko eta euskara batuaren arauak erabiltzeko.
- Gai izan behar du hizkuntza-forma eta -egitura egokienak bereizteko eta erabiltzeko.
- Gai izan behar du testu zorrotzak eta luzeak zuzen ulertzeko. Txosten zehatzak, analisiak eta iruzkinak irakurtzeko, han azaltzen diren iritziak, ikuspuntuak eta ideia-loturak ulertuz.
- Gai izan behar du bere gaitasun-arloan goi-mailako testuak irakurtzeko (esate baterako, ikerketa-txostenak) eta haietatik informazioak, ideiak eta iritziak ateratzeko. Berea ez beste arloetan, gai izan behar du zabalkundeko testu teknikoak ongi ulertzeko.
- Gai izan behar du argibide luze samarrak eta konplexuak ulertzeko, esaterako aparatu berri baten erabileraz, nahiz eta bere laneko edo intereseko arloekin zerikusirik ez izan, betiere irakurtzeko denbora nahikoa baldin badu.
- Gai izan behar du gaur egungo literatura-testuak erraz irakurtzeko. Literatura-testuetan, argumentuaz harago joateko eta barneko mezuak, ideiak eta loturak harrapatzeko.
- Gai izan behar du edozein motatako gutunak irakurri eta ongi ulertzeko.

4.1.3. Neurketa:

- Lehen ariketan (aukera anitzeko galderen proba) 32 erantzun zuzen eman beharko ditu azterketariak atal hori gainditzeko.
- Bigarren ariketan (irakurriaren ulermena) 6 erantzun zuzen eman beharko ditu azterketariak atal hori gainditzeko.
- Erantzun okerrenatik ez da punturik kenduko. Atal hauen kalifikazioa GAI edo EZGAI izango da.

4.2. Idazlana

4.2.1. Helburuak

- Azterketariak, bere jakintza-arloan nahiz orokorrean ari dela, testu zuzen eta egokiak idazteko duen gaitasuna neurtzea, 4.2.2. azpiatalak esaten duenari jarraituz.
- Hizkuntzaren ezagutzari dagokionez, azterketariak hizkuntzaren gramatika eta hiztegia ezagutzen dituen eta zuzen erabiltzen dituen neurtuko da. Era berean, neurtuko da Euskara Batuaren eredia (Euskaltzaindiaren arauak) eta ortografia ezagutzen duen eta zuzen darabilen.

4.2.2. Idazmena. Azterketariak eginkizun hauek betetzeko gai izan behar du:

- Gai izan behar du idatzi egokiak osatzeko, gai askoren gainean, orokorrak zein bere lan-esparrukoak, zuzentasunez eta lexikoa nahiz idazkera moldatuz, jasotzailearen, testu motaren eta gaiaren arabera.
- Gai izan behar du gai zailak erraz eta ongi egituratuta aurkezteko, puntu nagusiak azpimarratuz, esaterako idazlanetan edo lan-txostenetan.
- Gai izan behar du gertaera edo gai jakin baten iruzkina egiteko ikuspuntu desberdinak azalduz, ideia nagusiak azpimarratuz eta arrazoinamenduak adibide zehatzez argituz.
- Gai izan behar du bere idazlanetan irakurleari ongien egokitzen zaion idaztankera aukeratzeko.

4.2.3. Neurketa.

Hiru alderdi hartuko dira kontuan, eta hiruretan erakutsi beharko du azterketariak gutxieneko gaitasuna.

(a) **Edukia.** Emandako gaien artean aukeratu behar du nahitaez azterketariak bere gaia: **ez da zuzenduko** azterketako orrian agertzen ez den **beste gairen bat garatu duen idazlana**.

(b) **Adierazteko modu egokia darabilen ala ez:** egitura aberatsak erabiltzen dituen; lexiko zehatz, egoki eta adierazkorra darabilen; ideien eta egituren artean kohesio edo lotura egokia dagoen; lanaren egitura orokorra eta paragrafoen banaketa egokia den... Bereziki, honako egoera hauek hartuko dira kontuan:

- Esaldi sinpleegiak, erlatibozko edo menpeko perpausik gabeak hizkuntza erabiltzeko ohitura urria erakutsi ohi dute; eta epaimahaiak kontuan izango du. Era berean, arretaz aztertuko ditu eskatu baino laburragoak diren idazlanak, eta zigortu egingo ditu nabarmen laburragoak direnak
- Hizkuntzaren erregistroa ere gogoan izango da. Unibertsitate-mailako testu jasoaz arituz, ezin onartuzkoa da lagunarteko edo familia-giroan bezala idaztea. Hori dela eta, ez dira ontzat emango “ondo konturatzen zarenez...” moduko esaerak (“argi dago”, ”gauza nabarmena da”, ‘agerian dago’, ‘bistan da’ adierazteko).
- Lexikoa zientzia-arlo bakoitzari egokitu zaio, irakasgai horretan euskaraz aspaldian idatzi eta erabili diren hitz bereziekin. Nazioarteko berba ezagunaren ondoan euskarazko hitz asmatu berririk ere balego, aski ezaguna eta erabilia baldin bada, biak onartuko dira (*konkurrentzia = lehiakidetzeta; linguistika = hizkuntzalaritza; arazo soziala = gizarte-arazoa; erlazioa = harremana; modernoa = aro berrikoa, era*

berrikoa; internazionala = nazioartekoa...). Gogoan izan gaztelaniaz erabiltzen diren hitz zientifiko guztiak ez direla beti nazioartekoak izaten, baldin eta ingelesez, frantsesez eta alemanez, adibidez, halaxe esaten ez badira.

- Hitz zientifiko oso berezi eta asimilatugabeen grafian Euskaltzaindiak uzten duen askatasuna errespetatu egingo da, *c, q, v, w, eta y* letren erabileran adibidez (*campus, curriculum, cm, quorum, yeismo, voltmetro, watt...*), baina *ph, kh, th* gisako grafiak ez dira onartuko.
- Arrazoi berberagatik, behialako purismo-giroan asmatutako hitz zaharkituak (*ingurrazti, urrutizkin, ingi, ikurton, zinopa, zenbakizti, txadon, berramar...*) ez dira ereduzkotzat hartuko.

(c) **Zuzentasunari** dagokionez, bereziki kontuan hartuko dira honako hauek:

- **Ortografia**, Euskaltzaindiak erabakirik arauak, hauek jakinaraziak eta hedatuak izateko nahikoa denbora izan dutenean (2 urteko epea utziko da). Letra larrien eta puntuazioaren erabilera zuzena ere ebaluatuko dira.
- **Morfologia, euskara batuko ohiko lexikoa**, bai Euskaltzaindiak onartua eta bai gaurko idazle gehienek erabilia. Euskalkietako forma sinonimoak (*jausi/erori, hitz/berba, esan/erran, nola/zelan, hanka/zango, izango/izanen, oso/guztiz/erabat/hagitz/arras, ostu/lapurtu/ebatsi...*) ontzat emango dira, baina ez dira onetsiko aldaera dialektal hutsak (*barri, ule, urun, hontan, ikisi, ukutu...*), ez eta hizkuntza mintzatuko laburdura arruntak ere (*geo, o(a)in, be, gehio, orduntxe, fan, etxe´a, jun, ein, beitu...*). Literaturan onarturiko laburdurak, ordea, ez dira gaitzetsiko: *pixkat, edota...* Aparteko garrantzia izango du, halaber, *-a* organikoaren erabilera zuzenak ere.
- **Deklinabidean** euskara batuko ohiko kasu-atzizkiak erabiliko dira, eta baztertu egingo dira hizkuntza mintzatuko era laburtuak, arauz kanpoko txokokeriak eta lagunarteko formak: *mendin, burun, etxian, teilatuen dago, gauzik ez, neskakin, aitana, hortikan gizonarekila, etxetikan...* Zuzena da, ordea, mendebaldeko *-gaz* erabiltzea, ohiko *-rekin* atzizkiaren balioarekin. Funtsezkoa da, bestalde, ergatiboa (*-k*) ongi erabiltzea.
- **Aditzaren erabileran** euskara batuko paradigmak, Euskaltzaindiak erabaki eta argitaratuak, izango dira eredu. Hortaz, *dodaz, dituz, det, nitun, litaik, leikez, gintzazan, deusodaz, diotet, diozka, diotzate, dagoz* aldaera dialektalak, adibidez, ez dira aintzat hartuko. Adizki pluripertsonalen erabilera joria trebetasun-seinaletzat joko da. Aditz berezien erregimena eta morfologia (*-ri iritzi, -ri jario, -ri eutsi, -ri jarraitu, -ri begiratu* edo *behatu, joan ahal da, dautza...*) kontuan hartuko dira. Ez da inola ere onetsiko nork-nor paradigmaren ordezkari nork-nori, eta alderantziz, erabiltzea: **autoan ekarri dit (= nau), *esan gaituzte (= digute)...* Erregimen bikoitzeko aditzetan, biak eman daitezke ontzat: *lagundu dizu = lagundu zaitu*.

Hiru alderdi horietako bat (edukia, egokitasuna, zuzentasuna) oso eskas balego edo hirurak eskas baleude, EZGAI kalifikazioa jarriko litzaioke azterketariari.

(d) Akatsak balioesteko orduan, kontuan hartuko dira irizpide nagusi hauek:

- Noraino oztopatzen duen mezuaren **ulergarritasuna**. Larriagoak dira gaizki-ulertuak sortzen eta mezuaren ulermena galarazten dutenak, ulergarritasunean ondoriorik eragiten ez dutenak baino. Azken horiek garrantzi gutxiagokoak dira, irizpide soil honi dagokionez.

- Zein den akatsak ukitzen duen hizkuntza-sistemaren egitura. Irizpide honen arabera, larriak dira **oinarrizko** arau morfosintaktiko edo ortografikoetan eta maiztasun handiko hitzetan egiten direnak. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira normalean hain garrantzitsuak.

4.3. Ahozkoa

4.3.1. Helburuak. Azterketaren zati hau gainditzeko, azterketariak euskaraz komunikatzeko gaitasuna erakutsi behar du, bai eta bere jakintza-arloko gaiak euskaraz jarduteko eta azalpenak zuzen eta egoki emateko gaitasuna ere.

4.3.2. Neurketa. Honako irizpide hauek hartuko dira kontuan ahozko proba neurtzeko orduan:

- **Azalpenen egokitasuna eta zehaztasuna.** Ez da nahikoa berba egitea: azterketariak azalpen luze eta zehatz samarrak eskaintzeko gaitasuna erakutsi behar du; bai eta azalpena antolatzeko eta egituratzeko ere.
- **Zuzentasuna,** egituren eta ahoskeraren aldetik. Egitura traketsak edo gramatikalak ez direnak ez dira onargarriak; ez eta ahoskera traketsa ere.
- Azalpenak **hizkera zainduan** ematea, erregistro landuan alegia, eta ez etxeke edo lagunarteko hizkeran. Horretaz gain, azterketariak euskara batua erabiltzeko gaitasuna duela erakutsiko du.

Azterketaria aurreko atal horietan eskas balebil edo ataletako batean oso eskas, EZGAI kalifikazioa emango litzaioke.

4.4. Zuzenketako prozedura.

Azterketa idatzia zuzentzeko, aztertzaileak binaka antolatu eta azterketak banatuko dira zuzenketa-lanerako. Azterketak irizpideen arabera zuzendu eta aztertzaile bikoteak epaimahaiburuari edo idazkariari helaraziko dizkio azterketa zuzenduak, aurrez adierazitako epearen barruan. Azterketa bakoitzarekin batera fitxa bat entregatuko da, zuzenketaren emaitza duena (6. eranskina). Fitxa hori beteko dute aztertzaileek eta han adieraziko dute azterketaria GAI edo EZGAI den. Emaitza EZGAI baldin bada, oharretan azalduko da labur-labur zein izan diren arrazoiak (zuzenketa-irizpideen arabera). Aztertzaile biek sinatuko dute zuzenketa-orria.

Ahozko azterketan hiru epaimahaikide arituko dira, eta azterketari bakoitzaren jardunaren ondoren, 5-10 minutuko tarte hartuko dute hiru epaimahaikideen artean adostasunera iristeko.

5. ERANSKINA

UPV/EHUko EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (1):

Azterketaria:
NAN:

Azterketa idatzia. Eguna:

Emaitza (biribila egin dagokionari): GAI / EZGAI

Oharrak:

Sinadurak

Ahozko azterketa. Eguna:

Emaitza (biribila egin dagokionari): GAI / EZGAI

Oharrak:

Sinadurak

6. ERANSKINA

EHUko EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2) **<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO**

Azterketaria:
 (Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

Azterketaria:
 (Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak:

7. ERANSKINA

UPV/EHU-KO EUSKARA PROBEN BATZORDEAREN OSAERA

Batzordeburua:

Jesus Mari Makazaga Eizagirre

Batzorde-idazkaria:

Genaro Gomez Zubia

Batzordekideak (UPV/EHUkoak, epaimahaikideak):

Maxux Aranzabe Urruzola

Jasone Urkola Iriarte

Jokin Gorozika Bidaurrazaga

Joseba Ezeiza Ramos

Beñat Doxandabaratz Otaegi

Batzordekideak (UPV/EHUko Euskara Batzordearen izenean):

Miren Basaras Ibarzabal

Elena Diaz Ereño